

Ebazpena: R 27/2024

Espedientea: 8/2018 eta 7/2021, metatuak

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 29a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurka planteatutako gatazkei buruzkoa, zeintzuen helburua baita zehaztea zein den RC jauna (aurrerantzean, senarra) eta MS andrea (aurrerantzean, emaztea) pertsona fisikoen egoitza fiskala 2007. urtetik, baita CV SL sozietatearen egoitza fiskala zein den zehaztea ere, 2010. urtetik. Gatazka horiek Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari dira, 8/2018 eta 17/2021 espediente-zenbakiekin, hurrenez hurren.

I. AURREKARIAK

1.- Pertsona fisikoen egoitzari buruz. 8/2018 gatazka.

1.1.- ZAEAk 2012ko urriaren 3an jakinarazi zizkion AFARI pertsona fisikoen egoitza aldatzeko bi proposamenak. 2013ko urriaren 24an eta 2014ko otsailaren 26an berriz aurkeztu ziren proposamenak, baina ez zen erantzunik jaso.

Proposamenekin batera, Errioxako Ordezkaritza Bereziaren 2012ko urtarrilaren 11ko txostena eta EAEko Ordezkaritza Bereziaren 2012ko irailaren 19ko txostena aurkeztu ziren.

2014ko maiatzaren 29an, ZAEAk berriz aurkeztu zituen egoitza aldatzeko proposamenak.

2017ko irailaren 12an, Errioxako Ordezkaritza Bereziak egoitza-aldaketari buruzko beste txosten bat egin zuen.

2018ko otsailaren 19an, ZAEAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen, eta gatazka hori 8/2018 espediente-zenbakiarekin izapidetu da. Arbitraje Batzordearen datu-basean ez dira agertzen gatazka planteatzeko idazkiarekin batera aurkeztutako eranskinak; hala ere, ezerk ez du eragozten gatazka ebaztea, ez baita zalantzan jartzen gatazka planteatzeko idazkian jasotako frogak eta egiaztapen-jarduketaren ondoriozko eginbideetan jasotakoak guztiz bat datozela.

1.2.- ZAEAREN JARRERA.

Ezkontideek Araban dute aitortuta egoitza fiskala.

Senarrak, gutxienez 2002tik, Logroñoeko ospitalean lan egiten du, eta gutxienez antzinatasun berarekin klinika pribatu batean (asteazkenetan itxita egoten da), Logroñoeko PR kalean.

Senarrak Logroñoeko hiru higiezin % 100 du: lokal bat PR kaleko 5 zenbakian, etxebizitza bat SU kaleko 4 zenbakian eta beste bat N kaleko 20 zenbakian. Eginbidean jasota dago etxebizitzak hutsik edo, bestela, alokatuta daudela.

Senarraren banku-kontu gehienak, 2010. urtetik, Logroñoeko sukurtsaletan daude irekita.

Emazteak autonomo-erregimenean kotizatzen du 2004az geroztik, eta Oropesako (Castelló) CC eraikineko 230. apartamentua alokatzeagatik fakturak egiten dizkio MD SA sozietateari. Apartamentu horren % 50 emazteak du, eta beste % 50a senarrak.

Emaztea Logroñoeko S kaleko 13 zenbakian dagoen higiezin baten % 100aren titularra da.

Emaztearen banku-kontu gehienak, 2010etik, Logroñoeko sukurtsaletan daude irekita.

Ezkontide bakoitzak Panticosako (Huesca), Ayamonteko (Huelva) eta Oropesako (Castelló) hainbat higiezin titulartasunaren % 50a du.

Zergapekoen seme-alabei dagokienez, honako hauek dira inguruabarrak:

- Alaba zaharrena, MC, 1986an jaio zen, eta, beraz, eginbideak egin ziren garaian 26 urte zituen. 2009an, 23 urte zituela, SU kaleko etxebizitzan

zuen egoitza, eta 2010etik S kaleko 13 zenbakian (sozietatearen jabetzakoa da).

- Bigarren semea, D, 1990ean jaio zen, eta egoitza N kaleko 20 zenbakian du (noiztik ez da aipatzen).

- Alaba adingabea, M, 1992an jaio zen, eta egoitza Gasteizko E kaleko 16 zenbakian duela adierazi du (ez da agertzen noiztik).

2006. urtearen amaieratik, ezkontideak Gasteizko Z kaleko 12 zenbakian erroldatuta daude. Etxebizitza horri dagokionez, ZAEAk uraren eta elektrizitatearen kontsumoak aurkeztu ditu, eta badirudi kontsumo horiek oso txikiak direla. Ez dute telefonia finkorik, ezta gas naturalaren hornidura-kontraturik ere. ZAEAREN bisita batean, bizilagun batek etxe horretan senarraren ama bizi zela adierazi zuen.

2011ko azaroaren 15ean, sozietatearen jabetzako etxebizitza batera (V kaleko 24 zenbakia) joan zen funtzionario bat, eta ezkontideen «semea dela dioen» pertsona batek artatu zuen (horrek esan nahi du ez zela subjektua identifikatu, eta garai horretan 21 urte izango zituen D jauna izan behar zuela). Pertsona horrek adierazi zuen etxe horretan gurasoekin bizi zela. 2017ko ekainaren 29an egindako bisita batean ez zegoen inor etxean. ZAEAk hauen kontsumoak aurkeztu ditu: ura (Z kalekoak baino handiagoak), telefonia finkoa, elektrizitatea (Z kalekoak baino askoz ere handiagoak) eta gas naturalaren hornidura. 2005 eta 2011 bitartean ezkontideek emandako hainbat eskrituratan, etxebizitza horren helbidea ageri da.

1.3.- AFAk alegazio-idazkia aurkeztu zuen, ZAEAk planteatutako gatazka epez kanpokoa zela argudiatuz.

2.- Sozietatearen egoitzari buruz. 17/2021 gatazka.

2.1.- 2019ko apirilaren 15ean, ZAEAk AFari jakinarazi zion sozietatearen egoitza fiskala aldatzeko proposamena, aitortutako Gasteizko LE kaleko 3 zenbakitik Logroñoko PR kaleko 5 zenbakira. Proposamena 2019ko irailaren 26an eta 2020ko urtarrilaren 22an egin zen berriz, baina ez du AFaren erantzunik jaso.

Proposatutako egoitza-aldaketa Errioxako Ordezkaritza Bereziaren 2017ko urriaren 5eko txostenean eta EAEko Ordezkaritza Bereziaren 2019ko otsailaren 22ko txostenean oinarritzen da.

2021eko apirilaren 15ean, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen, zeina Arbitraje Batzordean izapidetzen ari baita, 17/2021 espediente-zenbakiarekin.

2.2.- ZAEAREN jarrera.

Ezkontideek 2000ko azaroaren 3an eratu zuten sozietatea, eta senarra sozietateko administratzaile bakarra da, eta emaztea, sozietateko ahalduna. 2005eko uztailaren 19tik egoitza soziala eta fiskala Gasteizko LE kaleko 3 zenbakian izan zituen, eta 2019ko maiatzaren 8an udalerrri bereko Z kaleko 12 zenbakira lekualdatu zen.

LE kaleko 3 zenbakian klinika pribatu bat dago, eta bertan senarrak kontsulta izaten du asteazkenetan.

Sozietateak hiru higiezin ditu: pisu bat V kaleko 24 zenbakian, pisu bat S kaleko 13 zenbakian eta lokal bat PR kaleko 5 zenbakian.

Sozietatea azken IATa Errioxako zentroetan gainditu duten hainbat ibilgailuren titularra da.

Sozietateak bi jarduera-zentro ditu: bata, Logroñoko PR kaleko 5 zenbakian (egunero irekita dago asteazkenetan izan ezik), eta bestea, Gasteizko LE kaleko 3 zenbakian (astelehen eta ostiral goizetan eta asteazkenetan irekita dago egun osoan, baina telefonoz jakinarazi zen senarrak asteazkenean bakarrik ematen dituela zerbitzuak).

Sozietatearentzat sektore sanitarioko hainbat profesionalak egiten dute lan, eta horietako gehienak Logroñon bizi dira. Sozietateak koadro bat aurkeztu zuen, horietako bakoitzak zein zentroan ematen dituen zerbitzuak adierazita.

Sozietateak bezeroen datuak aurkeztu ditu, eta datu horien arabera Logroñoko zentroan 3.580 kontsulta egin ziren, eta Gasteizko zentroan 11.375 kontsulta eta 805 operazio.

Sozietateak telefonia mugikorreko hainbat linea ditu, eta linea horiek Gasteizen dute fakturazio-helbidea.

Sozietateak alokatutako garaje-plaza bat du Gasteizen.

2.3.- AFAk alegazio-idazkia aurkeztu zuen, egoitza fiskala Gasteizen dagoela argudiatuz, honako inguruabar hauetan oinarrituta:

- Entitatea herri horretatik eratu, administratu eta kudeatzen da.
- Negozio-zifra garrantzitsuena Gasteizko zentrokoa da, Logroñoko zentroarekin alderatuta.
- Langileek ordu gehiago ematen dituzte lanean Gasteizko lokalean.
- Banku-kontuak Gasteizko sukurtsaletan daude irekita.

- Kontabilitate- eta zerga-aholkularitza (ASL) eta lan-aholkularitza (BC) Gasteizen daude, eta bertan daude, halaber, informatika-zerbitzuak ematen dituen entitatea (SI).

3.- ZAEAk azken alegazioen idazkia aurkeztu zuen. Idazki horretan, bi egoitza-aldaketak berretsi zituen eta 8/2018 gatazkaren formulazioaren behin-behinekotasuna argudiatu zuen.

4.- Espedienteak prozedura arruntaren bidez izapidetu dira.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak gatazkak ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio «Zergadunen egoitza dela eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Prozedurak metatzea.

Prozedurak metatu egin dira 39/2015 Legearen 57. artikulua arabera («Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura»), hori aplikatu behar baita 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikulua xedatutakoa betez, administratzailearen bizilekua erabakigarria delako sozietatearen benetako helbidea ezartzeko.

3.- Epez kanpokotasuna.

Egoitza-aldaketa proposatzeko epeari dagokionez (inhibizio-errekerimendua ordezkatzeko), Auzitegi Gorenaren 2012ko ekainaren 7ko epaiak (ECLI: ES: TS: 2012:3838) adierazi zuen epea ez betetzea ez dela deuseztat jotzeko arrazoia izango defentsa-gabeziarik egon ezean.

Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaiak (ECLI: ES: TS: 2014:1879) adierazi zuenez, egoitza aldatzeko ZAEAREN proposamenari BFAK berariaz emandako erantzunak, formulatu zen moduan (ohartarazten zen ezen, ezetsiz gero, irekita geratuko zela Ekonomia Itunaren 43.6 artikuluan agertzen den

bidea), gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean aurkezteko hilabeteko epe preklusiboaren hasiera ezartzen zuen (Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 2006ko maiatzaren 18ko Adiskidetasunezko Akordioetako interpretazioaren arabera, aldiz, egoitza-aldaketaren arloko lantaldearen 5.3 ondorioa aplikatzekoa zen).

Egoitza aldatzeko proposamena ustez ezesten denean, Auzitegi Gorenaren 2012ko ekainaren 7ko (ECLI: ES: TS: 2012:3838) eta 2013ko urtarrilaren 17ko (ECLI: ES: TS: 2013:209) epaiek adierazten dute isiltasun negatiboaren ondoreak izango dituela, eta «horren aurka ezin izango da argudiatu ukitutako zergapekoaren segurtasun-gabezia juridikoa; izan ere, ebazpenean izandako atzerapenaren ondorioak, halakorik badago, administrazio eskudunak praktikatzen duen likidazioarekin lotu beharko dira».

4.- Pertsona fisikoen egoitza-aldaketari buruz.

Hasiera batean, Gasteiz eta Logroño nahiko hurbil dauden hiriak dira, batean bizi eta bestean lan egin ahal izateko beste; beraz, ez da garrantzitsutzat jotzen senarrak herri batean edo bestean txandaka lan egitea. Harritzekoa da, ZAEAK aurkeztutako froga ugarien artean, senarrak autobidez egindako joan-etorriek (edo joan-etorririk ez egiteari) buruzko frogarik ez sartzea.

Izan ere, aurkeztutako froga gehienek, banku-kontuak irekitzeari, zergapekoen ondasun higiezinetakoa inbertsioei eta abarri buruzkoek, ez dute ezer zehazten haien bizilekuari dagokionez.

Senar-emazteek Logroño V kaleko eraikinean duten etxebizitzari buruzko aipamen bakarra ezkontideen semea dela dioen eta bertan bizi direla adierazten duen subjektu baten deklaraziotik dator. Higiezin hori sozietatearen jabetzakoa da.

Era berean, Gasteizko bizilagun batek egindako adierazpen bat aurkeztu da (bizilaguna ere ez da identifikatu). Haren arabera, Z kaleko higiezinaren senarraren ama bizi da.

Hortik abiatuta, uraren, elektrizitatearen eta gas naturalaren kontsumoei buruzko datuak ematen dira, baita telefonia finkoa izatearen frogak ere. Horiek guztiak kontuan hartuta, badirudi Logroño higerizinean Gasteizkoan baino pertsona gehiago bizi dela, baina horrek ez du egiaztatzen ezkontideak bertan bizi direnik.

Arbitraje Batzorde honen ustez, egoitza-aldaketa bat sustatzeko ez dira nahikoak izen-abizenen bidez eta NANaren bidez identifikatu gabeko subjektuek egindako adierazpenak, eta halakotzat hartu behar dira senarraren ustezko semea eta senarraren amaren bizilaguna.

Horren harira, adierazi behar da AFAk frogaren bat aurkeztu duela; baina, egia da, ondorengo aldietakoak direla, senarrak Araban jasotako asistentzia medikoari buruzkoak, bai eta sozietateak Gasteizen diru-sarrera handiagoak lortzen dituela erakusten duten frogak ere. Hala ere, ez da oso zentzuzkoa frogak edukitzea eta txostenetan ez sartzea egoitza aldatzeko ondoz ondoko proposamenak behar bezala erantzuteko, gatazka-planteamendua epez kanpokoa dela bakarrik argudiatzen baitu.

Beraz, ezkontideen egoitza fiskala lekualdatu nahi duenak egindako ekarpena falta da, bizilekua dela adierazten duten frogei buruzkoa (txartelarekin egindako gastuei buruzko datuak, autobideko joan-etorriak, etab.).

Ezkontideen bizilekua ezin denez zehaztu iraunkortasun-irizpidearen arabera (Ekonomia Itunaren 43.Bat.lehena artikulua), bigarren erregelara jo behar dugu (interesen gunea).

Interesen gunea da ezkontideek errentaren zatirik handiena lortzen duten lekua, baina ezin dugu aplikatu, administrazio batek ere ez baitu horri buruzko froga nahikorik aurkeztu.

Beraz, Ekonomia Itunaren 43.Bat artikuluko hirugarren erregelara jo behar dugu, eta kontuan hartuta zergapekoek PFEZaren aitortpenak AFAn aurkeztu zituztela, ez da bidezkoa ZAEAk proposatutako egoitza-aldaketa baiestea.

5.- Sozietatearen egoitza-aldaketari buruz.

ZAEAk sozietateari buruz aurkeztutako froga gehienek ez dute zuzeneko loturarik sozietatearen administrazio-kudeaketa egiten den lekuarekin eta sozietatearen benetako zuzendaritza-egoitzarekin, baizik eta, nolana ere, haren ohiko eragiketak egiten diren lekuarekin.

Administrazio-kudeaketaren lekua (kanpoko entitateek Gasteizen kudeatzen dutela egiaztatzen du AFAk) eta benetako zuzendaritza-egoitza bat ez badatoz, azken irizpide hori hartu behar da kontuan. Horretan oinarrituta, eta administratzailea Logroñon bizi dela ulertuta, ZAEAk uste du sozietatearen egoitza fiskala herri horretan dagoela.

ZAEAk administratzailearen egoitza aldatzeko uzia ezetsi denez, eta administrazio-kudeaketa Gasteizen egiten denez, ZAEAk sozietatearen egoitza aldatzeko uzia ere ezin da baietsi.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea ezkontideak diren RC jaunaren eta MS andrearen egoitza fiskala eta CV SL sozietatearen egoitza fiskala Gasteizen zegoela eztabaidagai izan ditugun aldietan.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta RC jaunari, MS andreari eta CV SL sozietateari jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Francisco Javier Muguruza Arrese.